

KONTROL MOZIOA

HIRIKO KULTUR ANIZTASUN POLITIKEN KUDEAKETA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko apirilaren 27ko udalbatzarrean, aho batez, bi puntu onartu genituen. Alde batetik, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako salaketa lana, sentsibilizazio kanpainak eta ekimenak hirian ugaritzea, talde politiko eta hiriko eragile zein herritarren arteko bateratasuna eta haien parte hartzea bermatuz. Eta bestalde, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ahalegin berezia egitea hiriko eragile eta talde politikoeekin adostasunak bilatzeko eta herritarrak gonbidatuko diren adierazpen instituzionalaren onarpena eta irakurketa publikoa egiteko.

Halaber, 2016ko ekainaz geroztik, ez dugu Kultur Aniztasun Bulegoan kudeatzen ari diren programen berri jaso eta ez dira udal taldeek egindako proposamenak aintzat hartzen ari; adibidez, Kultur Aniztasun Bulegotik antolatzen ari diren erakusketa edo eta tailerren informazioa ez da konpartitzen, edo martxoaren 21eko Nazioarteko Arrazakeria eta Xenofobiaren Kontrako Egunean gertatu zen bezala, aurrez aipatutako kontrol mozio urratuz, ez zen adierazpen instituzionalaren irakurketa publiko eta konpartitua eman.

Hori gutxi balitz bezala, urtebete da Kultur Aniztasun politiketarako zinegotzi ordezkariak Elkarbizitzarako Plan batean lanean ari zirela eta urtarrilerako aurkeztuko zitzaigula adierazi zigunetik, ekarpenak eta proposamenak egiteko aukera emanik. Sei hilabete joan dira urtarriletik eta ez zaigu inolako proposamenik aurkeztu.

Batzordean zinegotzi-ordezkariak ez zuen gai hauen inguruan argibide handirik eman.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, salbuespenik gabe, arrazakeria eta xenofobiaren kontra Udalbatzak eta Bozeramaileen Batzordeak onartutako ekimenak bete ditzala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arrazakeria eta xenofobiaren kontrako eta elkarbizitzarako politiketan elkarlana, parte hartzea eta babesia eskaini diezaiera Udalbatza osatzen dugun taldeei eta hiriko elkarbizitzarako dinamiketan parte hartu nahi duten herritar zein eragileei.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Kultur Aniztasun Bulegotik kudeatzen ari diren Hiriko Elkarbizitzarako Plana urtea amaitu baino lehen onar dezala, aldez aurretik Udalbatza osatzen dugun taldeekin eta elkarbizitza dinamikatan parte hartu nahi duten hiriko eragile eta herritarrekin kontrastea eginda eta ekarpenak jasota.

Donostian, 2017ko ekainaren 23an

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia